



## ANTOLAMENDU TXOSTENA

<b>Dokumentua:</b>	IO-2015-013
<b>Izena:</b>	Euskadiko Dokumentu eta Artxiboei buruzko Lege Aurreproiektua

**Egina:**

Izpta.: J.I. Osaba Urrutia

Proiektu-arduraduna

Data: 2015-03-20

**Onartua:**

Izpta.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Data: 2015-03-20

<b>ANTOLAMENDU-TXOSTENA</b>	
Dokumentua: IO-2015-013	Orrialdea: 2/6

**Proposamena:**

---

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan 2015eko martxoaren 12an sartu zen transmisio telematikoen bidez, Euskadiko Dokumentu eta Artxiboei buruzko Lege Aurreproiektuaren txostena eskatu du.

Lege Aurreproiektu honen xedea da, batetik, Euskadiko dokumentu-ondare publikoa eta pribatua babesteko, gordetzeko eta zabaltzeko modua arautzea, eta, bestetik, artxibo-zerbitzuak Euskadiko artxiboen sistemaren bitartez antolatu eta kudeatzea. Honako zati hauek ditu:

- Azalpenezko zatia.
- Xedapenei buruzko zatia, honela egituratua:
  - Atariko titulua, xedapen orokorreari buruzkoa, 1. artikulutik 4. artikulura bitarte.
  - I. titulua, titulartasun publikoko dokumentuei eta dokumentu-ondareari buruzkoa, 5. artikulutik 18. artikulura bitarte 2 kapitulu (titulartasun publikoko dokumentuak / Euskadiko dokumentu-ondarea) barne hartzen dituena.
  - II. titulua, Euskadiko artxibo-sistemei eta dokumentu-kudeaketari buruzkoa, 18. artikulutik 30. artikulura bitarte 4 kapitulu (Definizioa eta organoak / Artxiboak / Euskadiko Artxibo Historikoa / Dokumentu-kudeaketa) barne hartzen dituena.
  - III. titulua, dokumentuetan sartzeari buruzkoa, 31. artikulutik 33. artikulura bitarte.
  - IV. titulua, 34. artikulutik 39. artikulura bitarte 2 kapitulu (Arau-haustea / Zehapenak) barne hartzen dituena.
- Azken zati bat, xedapen gehigarri bakar batekin, 2 xedapen iragankorrekin, xedapen indargabetzaile bakar batekin (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluko VI. kapitulua eta IV. tituluko I. kapitulua) eta azken xedapen bakar 1.

**Balioespena:**

---

Adierazitako Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, honako hau adierazi beharra dago:

- A) Egiturazko eta antolamenduzko alderdiei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

<b>ANTOLAMENDU-TXOSTENA</b>	
Dokumentua: IO-2015-013	Orrialdea: 3/6

- 19. eta 20. artikulua, Euskadiko artxibo-sistemei eta sistema hori osatzen duten organoei buruzkoak: Eusko Jaurlaritzan Dokumentu Ondarearen eskumena duen saila (hemendik aurrera, Saila), Euskadiko Artxiboen Kontseilua eta Euskadiko Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordea.
- 22. artikulua, Euskadiko Artxiboen Kontseiluari buruzkoa, Sailari atxikitako kide anitzeko organoa izaki erregelamenduaren arabera osaera eta funtzionamendua izango dituen. **Horregatik uste dugu une honetan Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendariarentzat ezinezkoa dela horren inguruan inolako balioespenik egitea.**
- 23. artikulua, Euskadiko Artxiboen Kontseiluari buruzkoa, Sailari atxikitako kide anitzeko organoa izaki erregelamenduaren arabera osaera eta funtzionamendua izango dituen. **Horregatik uste dugu une honetan Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendariarentzat ezinezkoa dela horren inguruan inolako balioespenik egitea.**
- 27. artikulua, Sailari atxikitako zerbitzu gisa eraturako Euskadiko Artxibo Historikoa sortzeari buruzkoa. **Sortze hori balioesteko eskumena Funtzio Publikoari dagokiola uste dugu.**

B) Prozedurazko alderdiei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 13. artikulua, titulartasun pribatuko dokumentuak Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeari buruzkoak, honako hau dio:
  - 2. puntuan: *“Eskumena duen organoak aukera izango du deklarazioko administrazio-espedita ofizioz irekitzeko, alderdi baten eskaerari jarraiki edo edozein pertsona fisiko edo juridikoren eskaera arrazoituari jarraiki”*. **Horri dagokionez egokiagoa dirudi Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 68. artikulua aintzat hartzea, eta horren harira, Prozedura hasteko moduei buruzko 68. artikulua dio *“prozedurak administrazioaren kabuz edo interesdunak eskaturik hasi daitezkeela”*; gure ustez *“alderdi baten eskaerari jarraiki”* eta *“edozein pertsona fisiko edo juridikoren eskaera arrazoituari jarraiki”* gauza bera direlako. Bestetik, gomendatzen dugu izapidetze elektronikoaren aukera aurreikustea, ondorengo garapen-araudian alderdi batek eskaturik hasi beharreko espeditetetan.**

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-013

Orrialdea: 4/6

- 3. puntuan: “*Eskumena duen organoak espedientea irekitzeko eskaera ebatziko eta jakinaraziko du, sei hilabeteko epean aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitzean jakinarazi ez bada...*”; 6. puntuan: “*Euskadiko dokumentu-ondare deklaratzeko erabakia gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko da, espedientea ireki izana EHAAAn argitaratzen den egunaz geroztik zenbatzen hasita*”. **Hau da, hasiera batean 6 hilabeteko aldia izango genuke deklarazio-espedientea hasten den edo ez erabakitzeko, eta hortik aurrera, eta bidezko bada, 12 hilabete gehiago espediente hori izapidetzeko. Horri dagokionez aipatzekoa da arau-aurreikuspenak 2 fasetan jardutea ezarri duela, eta ez dirudi hori justifika daitekeenik, ez berez, ez fase bakoitzerako aurreikusitako epearengatik, eta, gainera, horrek ez du laguntzen ez administrazio-izapideak errazten, ez administrazio-kargak murrizten, ez Euskal Administrazio Publikoak gaur egun bultzatu nahi duen hobekuntza-eta efizientzia-irudia bultzatzen. Bestetik, gomendatzen dugu izapidetze elektronikoen aukera aurreikustea, ondorengo garapen-araudian alderdi batek eskaturik hasi beharreko espedienteetan.**
- 4. eta 5. puntuetan, berriz, zera ezartzen du: deklarazio-espedienteetan dagokion Foru Aldundiari entzun egingo zaiola, espediente horiek jendaurrean jarriko direla eta Euskadiko Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordearen aldeko txostena izan beharko dutela. **Izapidetze elektronikoiari dagokionez gomendio bera errepika genezake.**
- 14. artikulua, Euskadiko dokumentu-ondarearen inbentarioa sortzeari buruzkoa. Inbentarioa jendaurrean jarriko da eta kudeaketa Sailaren ardura izango da. **Egoitza elektronikoa sartzeko aukera aintzat hartzea gomendatzen dugu.**
- 15. artikulua, Euskadiko Artxiboen Erroldari buruzkoa. Horren arabera, Sailaren eskumena da errolda hori lantzea, eguneratzea eta hedatzea, eta EAEko artxiboetako titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak behartuta daude errolda hori lantzen eta eguneratzen laguntzera, baldin eta Euskadiko dokumentu-ondarearen dokumentuak zaintzen badituzte. **Bestetik, gomendatzen dugu izapidetze elektronikoen aukera aurreikustea, ondorengo garapen-araudian alderdi batek eskaturik hasi beharreko espedienteetan.**
- 16 artikulua, Euskadiko dokumentu-ondarearen titular pribatuen obligazioei buruzkoak, honako hau adierazten du:
  - b puntuan, oso-osorik gorde beharko dutela, funtsak zatikatu gabe Sailak horretarako baimena ematen ez badu.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2015-013

Orrialdea: 5/6

- d puntuan, Sailari aldez aurretik eman beharko diotela dokumentuen titulartasun edo jabetzan izandako aldaketen berri.
  - e puntuan, ezin izango dutela dokumenturik deuseztatu, aldez aurretik Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordeak baimenik eman ezean.
- Bestetik, gomendatzen dugu izapidetze elektronikoaren aukera aurreikustea, ondorengo garapen-araudian alderdi batek eskaturik hasi beharreko espedienteetan.**
- 17. artikulua, Euskadiko Dokumentu Ondareko dokumentuen jabe edo eskubide-titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoek Sailari informatzeko edo kostu bidezko besterentze edo eskualdatzeak jakinarazteko betebeharrari buruzkoa. **Kasu horretan ere izapidetze elektronikoari buruz aldez aurretik adierazitakoa errepikatu behar dugu.**
  - 29. artikulua, dokumentu-kudeaketaren zereginei buruzkoa. **Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren VI. titulua hartu behar da kontuan, dokumentu elektronikoa eta haren kopiak arautzen dituen. VI. titulu horren III. kapituluak dokumentu elektronikoak gordetzeko eta artxibatze modua arautzen du, eta zehazkiago 42. artikulua honako hau ezartzen du: “Administrazioaren eginbeharretako bat agiriak kudeatzeko bere politika onartzea eta argitaratzea da. Politika horretan, Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Eskema Nazionalak eta eskema horiek garatzeko arauak bete beharko ditu”. Zentzu horretan aipatu beharko litzateke, halaber, urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoaren esparruko Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena. Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala oinarri-oinarrizkoa da, eta beraz, Estatuko administrazio publiko guztiek nahitaez bete beharrekoa. X. kapituluan, dokumentu elektronikoa berreskuratzeko eta gordetzeko baldintzak ezartzen ditu.**
  - 30. artikulua, dokumentuak ebaluatu eta hautatzeari buruzkoak, honako hau dio 4. puntuan: “Euskadiko Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordeak hiru hilabete izango ditu eskatzen dizkioten txostenak emateko eta jakinarazteko. Epe hori igaro eta txostenaren berri ematen ez bada, aldeko irizpena eman duela ulertuko da.”. **Kasu horretan administrazio-isiltasun positiboa egokia iruditzen zaigu, nahiz eta informatzeko aurreikusitako 3 hilabeteko epea gehiegizkoa den, 30/1992 Legeak, txostenak bideratzeko, 10 eguneko epea ezarri**

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

Dokumentua: IO-2015-013

Orrialdea: 6/6

**duela kontuan hartuta. Gogora ekartzekoa da, halaber, aldez aurretik izapidetze Elektronikoari buruz azaldutakoa.**

- 31. artikulua, dokumentuak eskuratzeko eskubideari buruzkoa. Bestetik, gomendatzen dugu izapidetze elektronikoaren aukera aurreikustea, ondorengo garapen-araudian alderdi batek eskaturik hasi beharreko espedienteetan.
- 33. artikulua, dokumentuak eskuratzeko araubide orokorraren salbuespenei buruzkoa. 3. puntuan, salbuespenezko baimena eskatzeko aukera aipatzen du. **Beste behin ere, izapidetze elektronikoari buruz esandakoa errepikatuko dugu.**
- 38. artikulua, zehapen-espedientea irekitzeko prozedurari buruzkoa. **Haren izapidetze elektronikoaren aukera ere hartu beharko litzateke aintzat.**

**Laburbilduz, izapidetze elektronikoari dagokionez, aukera hori ez dago jasota aldez aurretik aipatutako prozeduretan. Nolanahi ere, ulergarria dirudi hori kontuan ez hartzeak lege-maila duen arau batean, kasu honetan bezala, baina ezinbestean hartu beharko litzateke kontuan arau hori garatzeko ondorengo araudian.**

**Azkenik, adierazi beharra dago Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aipatutako prozeduren izapidetze elektronikoa arautu, antolatu eta implementatzeko eta administrazio-kargak murrizteko behar duen aholkularitza eta informazioa emango duela Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak**

**Ondorioak:**

---

Txosten honen arrazoia den Aurreproiektua aztertu ondoren, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18. artikulua bidez esleitutako eginkizunei jarraiki, horiek dira Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak antolamendu- eta prozedura-ikuspuntutik Euskadiko Dokumentu eta Artxiboei buruzko Lege Aurreproiektuaren inguruan egindako oharrak.